

BALEIKE





695€

4K

65"

Smart TV

LG UHD TV AI ThinQ

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

LG
65UK6300

ORDAINDU
12 HILABETEAN
Interesik gabe

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

719€

203X60 zm

A+++

INOX

SIEMENS
KG39NVI45



144x55 zm

249€

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

160x55 zm

269€

TEKA

SALTZEAZ
GAIN,
ARRETA ERE
EMATEN
DUGU

TIEN 21



www.endañetazumaia.com



BALEIKE 288

2019-EKAINA

AZALEKO DISEINUAREN EGILEA:
IMANOL SESMA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 4 | Izpiak eta hizkiak David De Llodio
<i>Galdutako paradisua</i> | 31 | Heziketa Izar Arregi
<i>Nola landu heriotza umeeekin</i> |
| 6 | Hainbat aburu Aitor Leiza
<i>Zumaian banda gorria eta marroia</i> | 33 | Zientzia eta ingurumena
Gonzalo Torre
<i>Historia errepikatu egiten da</i> |
| 7 | Errematea Jose Castillo
<i>Memoriaz</i> | 37 | Orduan bai Imanol Azkue
<i>Maria Axun Albizu Urteaga, lili eder bat</i> |
| 9 | Erreportajea
<i>25. urteurrena</i> | 42 | Kultura Juan Luis Romatet
<i>Sei sokako poliedroa</i> |
| 15 | Elkarrizketa Izaskun Urbietia Esnal
<i>Maialen Calleja: "Arkitekto batek sentsibilitate puntua izan behar du eraikin erakargarri eta polita egiteko"</i> | 43 | Agenda |
| 20 | Erretratua Julen Aperribai
<i>Jesus Mari Elustondo, bihurtune artetik</i> | 44 | Literatura Asier Arakistain
<i>Sentimenduak azaleraziz</i> |
| 24 | Bazkide kluba | 45 | Nire txanda Irune Aranguren
<i>Barragan</i> |
| 26 | Plazan bazan | | <i>Heriotza</i> |
| 29 | Osasuna Rosa Azkue
<i>Depresioa II</i> | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Liburu? Zer liburu?</i> |

BALEIKE

TOKIKOM

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea
Foronda Kultur Etxea.
Odieta, 2.
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Izaskun Urbietia

Maria Maya Manterola
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
publizitatea@baleike.eus
Administrazio arduraduna
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Zumaia Udala

k
kutxabank

Galdutako paradisua

ARGAZKIA ETA TESTUA: DAVID DE LLODIO

Argazkilaritza diziplina guztietatik gehien erakartzen nauena paisaia-argazkigintza da. Enkoadraketa onenaren bila eginiko esplorazioa, argi magikoaren zain, argazkia ateratzeko momentua iristeko erritmo pausatua, baina, gehienbat, naturarekin lortzen dudana lotura sinbiosi hori da momentu horietaz bete-betean disfrutarazten didana.

Nire lekurik gustukoenetako bat oso gertu dugun Algorri da, baina, zoritxarrez, Algorri dagoeneko ez da beti izan den leku intimo eta zoragarria. Adibidez, argazkiko unean, norbaiti otu zitzaion musika jasanezina dena emanda jartzea, eta momentu paregabe horretako sentsazio guztiak hautsi zituen.

Zorionez, argazkiek ez dute soinurik oraindik, eta argazki honen bidez izan zitekeena baina izan ez zena konpontzen saiatu ahal naiz. ■■■■

Datu teknikoak: Sony A7II + Zeiss 16-35; 27mm; f4; 15 segundu; ISO 200; ND 10 pausoko iragazkia + 3 pausoko iragazki graduatua.







Zumaian banda gorria eta marroia

Jakinekoa zen arazo hau bazetorrela azken 20 urte ingurutik, baina gaitz hau sortu duen izurritea 1942tik dugu gure artean. Egoera larri honetaraino nola iritsi garen aztertuko dut, eta horretarako baso politikari helduko diot.

Orain 100 urte inguru, terreno komunak zirenak terreno publiko bezala saltzea erabaki zuten garai hartako agintariek, batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian. Eta, normala denez, bertoko baso ia guztiak moztu zituzten dirua ateratzeko. Masa forestala lortu behar zuten nola edo hala. Ikusi zuten Intsini pinua ondo ateratzen zela eta etekin ekonomikoa ateratzeko aukera zegoela. Bertoko zuhaitzez osatutako basoak leku malkartsuenetan eta harritsuetan garatu ziren, hau da, laborantzan edo egurra

ustiatzeko leku txarrak ziren terrenoetan. Europa mailan Gipuzkoak eta Bizkaiak *urrezko domina* dute bertoko basoak zatitzeagatik. Ez al duzue inoiz pentsatu zergatik joaten garen Nafarroara perretxikoak biltzera? Eta non ditugun haritzek osatutako bi hektarea inguruko basotxoak? Beno, bada hau gertatzen da, nagusiki, haritzekin osatutako baso mistoa hartu dutelako pinudien plantazioek. Basogintzak bakarrik ez, industrialdeek, herrien zabalkuntzek, errepide nagusiek eta abarrek kaltetu dituzte basoak.

Baso politikak monolaborantza sistema bultzatu du. Baratzea duzuenok ondo ulertuko duzue: izurrite bat sartzen denean, oso zaila izaten da bertotik kentzea.

Nolabait, horixe gertatu da gure mendietan. Baratzetan ez al duzue landareen errotazioa egiten, eta, gainera, ongarritu? Pinudiekin, askotan, ez da errotaziorik izan eman eta leku askotan hirugarren plantazioan gaude. Lurra pobregoa izateaz gain, osasun aldetik makalagoa da. Basogintzan, oro har, zuhaitz bakarraren apustua egin denez, sektore honek une txarrak pasa beharko ditu.

Diru publikoaren erabileraz ere hitz egin behar dut, uste dudalako gaizki erabiltzen ari garela. Gutxi batzuen artean banatzen dute pastelaren erdia inguru, eta geratzen den zatia beste guztien artean. Baserritarrei lagundu behar zaie, baina ez egurgintzako lobbyei. Pinuen krisialdiarekin, naturazaleok aukera bat ikusten dugu politika forestala bide

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



JOSE CASTILLO

Memoriaz

Azken maiatzaren 1 honetan *Vitoria, 3 de marzo* filma ikusteko aukera izan nuen, estreinaldi egunean, noiz eta langileen nazioarteko egunean. Data paregabea, zalantzarik gabe. Zuzendaritza eta gidoi aldetik, film paregabea da, bikain irudikatzen ditu 1976ko Gasteizko giroa eta testuinguru politikoa. Baina film horretan gera zitekeen, Euskal Herriko langileen borrokaren istorioa ahalik eta modu fidelenean kontatzen saiatzen den film on batean. Baina, ez, filmak askoz gehiago egiten du, amaierako kreditu hunkigarrietan Gasteizen hildako sei langileen borrokari aitortza eta borroka horren beharra etorkizunera begira proiektatzen baitu, amaitu ez den zerbait bezala.

Berehala, Walter Benjamin filosofoaren *Historiaren filosofiari buruzko tesiak* etorri zitzaidan burura. Filosofo alemaniar-juduak historiako gertakizunak kontakizun hutsetik at, egun oraindik borrokan dauden kontakizun gisa ulertzen zituen. Bada, Gasteizen martxoaren 3 lazgarri hartan gertatu zena ez badugu guk geure egiten eta hedatzen, langileen hiltzaileen oinordekoek egingo dute. Horregatik dira hain garrantzitsuak halako filmak, gure historiaren jabe egiteko: "Behin gertatu zen porrotik ez da galdutzat eman behar historian". ■

egokietatik eramateko, baina beldur izugarria dugu eukaliptoen plantazio masiboekin. Galiziako herri batzuetan, suteekin eduki dituzten arazoak direla eta, zuhaitz kaltegarri edo inbaditzaile izendatu dute. Europako legediak aldatu nahi dituzte, Espainian eta Portugalen egon diren hondamendien ondorioz. Gure inguruan Mutriku izan da aitzindaria: eukaliptoaren landaketa debekatu nahi izan dute, baina mozioa ez da aurrera irten. Zuhaitzak mozteko sistemak (matarrasak) sortzen duen erosioak lur galera ekartzen du. Lurra denona da, ez ahaztu, ez du jaberik. 10 milimetro lur begetala lortzeko 100 urte behar dira eta euria egiten duenean ikusi besterik ez dago Urola ibaia nola datorren.

Basogintza politika aldaketaz hitz egiten dugunean, galdera bat egin behar dugu: zer nahiko dugu mendietan hemendik 30 urtera? Esan beharra dago egindako plangintza forestala ez direla betetzen ari; mendi babestuak izendatu behar zituzten, korridore naturalak landu, eta ez dira ezer egiten ari... Diru publikoa egurgintzako lobbyari zuzenduta dago, eta botoak ez galtzeko klientelismoari.

Mezu positiboarekin bukatu nahi dut: hain kaltetuak dauden pinudien azprietan indartuta dator bertoko basoa, eta administrazioei eskatu behar zaie baso horiek bultzatzeko. Zumaian mendi babestu bezala izendatu beharko lukete Artadiko mendi publikoa, eta, kontserbazioari begira, lur estrategikoak erosi. ■

INTEGRATZE ZAILA, NAHITA ERE...
IBILALDIAN NAHIZ ESKOLA PUBLIKOAREN JAIAN,
EURI ZAPARRADA BAT ASKI BADA
GURE SISTEMA AHULA ITOTZEKO,
ZORPETZEKO ETA DIRU-ESKERA
JO BEHAR IZATEKO,
GU GEU BEHAR BEZALA INTEGRATU
BEHAR LEHENDABIZI...

@garbineubeda

PUBLIZITATEA

7
MARES

Arrain eta mariskoak
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES izoztuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09

a3 diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943 14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52

SAVALERO

AI ZPURUA

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69

AL-ANON

Alkoholikoen seride eta lagunen elkarteak
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61

Amama
taberna

tel.: 943-54 31 64
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Arotzgia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31

f

OKINDEGIA
Arkupe

Nagusia, 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER

Arruti
ARROPA DENDA

ANGELES SORAZU 1 BEHEA
943-84 34 06
20790 ZUMAIA (GIPUZKOA)

ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69

BOSCH Service
Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

Azkue

www.ricardoazkue.com
Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax. 943-86 27 48

943-86 02 75
697 81 24 92
batzokizumaia@gmail.com
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)

bai bidea
Taberna • Jatetxea
Bar • Restaurante

f t i

finca, french, euskara, anglés, espagnol, catalán, suomi, baski, català, finès, frantses, katalan, frantses, basque, basque, finès, basque, catalan

Bakun
ITZUPEN ETA ARGITALEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./fax: 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net

Basadi
albaitaritzak

filbaitaria
Itaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadivivinet.com
www.basadivivinet.com

Geluz: 11-13 / Arrotsalaz: 16-19/30 / Astelehener goizean eta larunbatean itxia
Larrialdetarako: 605 72 87 07 Etaz ezeko zerbitzua

BEHEKO PLAZA
taberna-jatetxea

- Egunko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943-86 17 00

Garabira bueltan 25 urte ondoren

Arranplako garabi zaharraren bueltan hasi zen *Baleikeren* abentura orain 25 urte, 1994ko ekainean. Mende laurdenen ondoren, ez dago garabirik Arranplan. Haren espiritua biziberrituko dugu, baina, ekain honetan.


Hogeitabost urte beteko ditu *Baleikek* hilabete honetan, eta garbi genuen nolabait ospatu beharko genuela. Mende laurden honetan izan dira urteurren eta ospakizun gehiago. Bidaia hau hasi eta berehala, urtebetera, ospatu genuen lehen urteurrena. Garai hartan ez genekien zenbat iraungo genuen, eta, ziur aski, inoren buruan ez zen izango 25 urte geroago hemen jarraituko genuenik. Ordutik “txouak” izan dira (1 eta 2), dokumental faltsuak (halako generorik zegoenik ere ez genekienean), edota orain bost urte, 20. urteurrenean, antolatu genuen kultur ekitaldiz betetako kalejira hura.

Ospatzeko moduko urteurrena zen, 25 urte betetzea gauza handia delako, are eta gehiago gurea bezalako hedabide txiki batentzat. Baina zer egin? Ez genuen aurretik egindako ezer errepikatu nahi. Egindako ekitaldi asko arrakastatsuak izan ziren, beste batzuk ez hainbeste, baina gauzak errepikatzea ez dago gure DNAn. Atzera begiratzeak nostalgiara garamatza. Ez, aurrera begiratu behar da, beti.

Eta hori hala izanda ere, gauzak nola diren, bulegoan gordetzen ditugun aldizkari zaharrei begira geundela sortu zen lehenengo ideia: argazki erakusketa bat egitea Oxforden. Urte hauetan guztietan aldizkariko azaletan agertu diren lagunen gaur egungo argazkiekin osatuko genuen erakusketa. Hori zen hasierako asmoa. Ideia, baina, hankamotz geratzen zela ohartu ginen: zer adierazi nahi genuen argazki horiekin? Non da berrikuntza? Buelta bat eman genion ideiari, bi buelta, bost, hamar... Eraitza ekainaren 14tik 23ra bitartean ikusteko aukera izango duzue Alondegiko Oxford aretoan.

Musikarekin lotutako ekitaldiren bat antolatzea ere eskuartean genuen. Ordu txikietan sortu eta hurrengo eguneko ajeak lausotu ez

Testua: **Baleikeko lan taldea.**



Baleikeren lehen zenbakia.



Joseba Irazoki eta Lagunak kontzertua emango du ekainaren 22an Mari kalean.

25 urte hauetan ateratako Baleike aldizkariak.

dituen ideiekin jokatu dugu: Urola erdian gabarra bat jarri eta musika taldeek bertan jotzea; kamioi bat “soltatzea” herriko kaleetan, eta taldeek haren kajera jotzea, kamioia martxan dela. Gauzatzeko hain errazak ez diren ideiak ziren, ordea: nondik lortu gabarra bat? Athleticek berea utziko ote liguke, ahal izanez gero, musutruk... Handinahiko asmoak alde batera utzi, eta kontzertu bat antolatu dugu. Ez nolanahikoa, ordea. Iazko euskal diskorik onenetako bat atera duen Joseba Irazoki eta Lagunak izango da Zumaian. Ekainaren 22an izango da kontzertua, 22:00etan hasita, Mari kalean. Festarekin jarraitzeko, DJ saioa izango da Maitxekin, 23:30ean, Kofradian.

Garbi genuen, baita ere, hau guztia, *Baleikeren* 25. urteurrena, zuekin ospatu behar genuela, *Baleikeko* bazkideekin, zuek izan zaretelako gure sostenguetako bat bidaia honetan. Hori dela eta, opari batzuk jasoko dituzue ekaineko aldizkariarekin batera. Batetik, *Gerraurreko Zumaia* liburuaren ale bat jasoko duzue, Baleike Kultur Elkartek argitaratu duen azken liburua. Bigarren

Errepublika Zumaia nolakoa zen agertzen duen argitalpena da hau. Liburu bikoitza da; alde batetik, G. Barbarin idazle frantsesaren eleberria daukalako, 1936koa, eta, bestetik, Xabier Azkuek garai hari buruz osatu duen kronika, argazki, bertso, prentsa zati eta lekukotzez hornitutakoa.

Bestetik, urteurren hau dela eta espresuki egindako telazko poltsa bat ere jasoko duzue bazkideok. Eta hemen itzultzen gara Arranplako garabira. Poltsak eramango zuen diseinua Imanol Sesma zumaiaerrari eskatu diogu. Askatasun osoa izan du nahi duena egiteko, eta poltsetan eta aldizkari honetan bertan ikus dezakezu diseinu eder hau aurkeztu digu. *Millennialek* agian ez duzue jakingo, baina garabi bat egon zen Arranplan, eta garabi hori bera agertzen zen aldizkariaren lehen zenbakian; *Baleikeren* ikurra ere izan zen lehen urte gazte eta zalapartatsu haietan. 25 urteren ondoren garabira itzuli gara. Ez pentsa, ordea, *Baleikeren* historia hemen amaituko denik, bidaia ez da eta amaitu; abentura honek jarraipena izango du.

Dozenaka

Herria hankaz gora jarri nahi zuen gazte kuadrilla lotsagabea ginen duela 25 urte. Zumaian gertatzen zenari buruzko informazioa

euskaraz eta gazteon ikuspegitik emateko beharra sentitu eta halaxe erabaki genuen *Baleike* aldizkaria sortzea. Ez genuen baliabiderik, ez jakintza handirik, baina abiatu ginen 1994ko ekainean, bi aldiz pentsatu gabe. Gaztetasuna zer den! Erokeria hark zenbat

iraungo zuen arrastorik ere ez genuen, baina burutik pasa ere ez 25 urteko bidea osatuko genuenik. Pentsa, lehen urteurrena ere ospatu genuen, badaezpada...

25 urte hauetan *Baleike* aldatu egin da, nola ez. Laster hartu zuen herri komunikabide izateko ardura eta bilakaera begi bistakoa da, bere gorabehera guztiekin. Duela 15 urte webgunea sortu genuenean ere ezin genuen imajinatu zumaiairrentzat ezinbesteko tresna bihurtuko zenik egunerokoan. Herrian sendo errotutako komunikabidea da *Baleike*, baina azken urteotan ikasi dugu lagun onak topatuz gero, bidea arinagoa dela, urrunago irits gaitezkeela. Horrela sortu da, esate baterako, *Ttap* aldizkari digitala.

Paperean edo digitalean, zumaiairrak izan dira 25 urte hauetan gure protagonistak. Haien lorpenak eta penak, haien kezak eta aldarrikapenak. Ehunka izan dira. Beti saiatu gara herriko bizitzaren lekuko izaten, ahalik eta gertuen egoten; eztabaida egon denean, iritzi guztiei ahotsa ematen. Beti ez dugu lortu, kale egin dugu behin baino gehiagotan. Perfekezioa ez da gure dohainetako bat, badakigu... Baina beti jokatu dugu zintzotasunez, eta egunero sentitzen dugu zumaiairrentzat sinesgarriak garela.

Erakusketa hau ez da azken 25 urteen errebaso historikoa; ekainaren 14tik 23ra bitartean Oxforden egingo den erakusketan agertuko diren hamabi lagunak ez dira 25 urte hauetako pertsonaia inportanteenak. Ez da hori gure helburua. Hamabi hauek aukeratu ditugu, baina izan zitezkeen beste hainbat. Aldizkarian protagonista izan zireneko garaia gogoratzeko eskatu diegu, *Baleike* beraientzat zer den azaltzeko. Eta saiatu gara iragana, oraina eta etorkizuna lotzen, formatu berritzaile batean. Oxford aretoan antolatu dugun erakusketaren parte izango da erakusketarako prestatu dugun aldizkari digitala. Mila esker *Baleike* posible egiten duzuen guztioi, eta gozatu!



Elena Irureta erakusketarako une batean.

Imanol Sesmak diseinatutako poltsa bana jasoko dute bazkideek opari bezala.


Gerraurreko Zumaiaz bi liburu, ale bakarrean

TESTUA: XABIER AZKUE

II. Errepublikaren garaian Zumaia nolakoa zen ezagutzeko aukera bikoitza eskaintzen du Baleike kultur elkarteak. Maiatzaren 30ean aurkeztu genuen Iana San Telmo ermitan, liburuan inguru horrek protagonismo berezia duelako. Bazkideek ale bana izango duzue opari, aldizkariaren 25. urteurrena ospatzeko.

Duela lau bat urte ustekabeko opari ederra bidali zidan lagun batek posta elektronikoz: frantseseko liburu baten fitxategia. Mezuan kontatu zidan idazle frantses batena zela, 1936koa; testuan 'Zumarroa' agertzen zela, baina Zumaia iri batuz ari zela.

Hasi nintzen, beraz, *Jesusa de Guipuzcoa* liburu irakurtzen, Georges Barbarin¹ idazlearena. Jakin-minak piztuta, Interneten arakatzeari ekin nion, etxean kontu batzuk galdetu nituen, eta ikusi nuen gertaera batzuk benetakoak zirela, 1932ko Zumaia erakusten zutela. Eleberria fikzioa da, bai, baina begira zer aitortu zuen Barbarinek liburuaren atariko testu batean: "Istoria honetan kontatutako guztiak gertatutakoak dira, intrigako kontu batzuk bakarrik dira asmatutakoak. Pertsonaia guztiak bizi dira, baina gutxi batzuek beldu ditut jende askoren ezaugarriak eta askotako istorioak. Ahalegindu naiz hizkera, keinuak, tonua eta giroa ahalik eta leialen ematen".



Alde batetik, eleberria. DANI CARBALLO

Liburua 1936an argitaratu zen, eta Suitzako *La Sentinelle* egunkari sozialistan ere eman zuten atalka. Argitalpen berezi bat da euskaratzeko guk oinarritzat hartu duguna, Marcel Delaris izeneko artista baten ilustrazioak dituen. Maia Ossa Rissanenek ekarri du testu originala euskarara, Bakun enpresaren bitartez.

Nobela bitxia da, xehetasun asko eskaintzen duena; herriko txoko batzuk bikain deskribatzen ditu. Garai baten testigantza ematen digu, eta bereziki errepublikanoen ikuspegitik, gainera. Eta nolatan kokatzen den eleberria Zumaian? Idazleak

"GARAI BATEN
TESTIGANTZA EMATEN
DIGU, ETA BEREZIKI
ERREPUBLIKANOEN
IKUSPEGITIK"

hilabete batzuk eman zituelako San Telmo ermitaren ondoko etxean. Liburuaren atariko testuan Barbarinek aitortzen du nola zuzenean ezagutu zuen gerra aurreko giro hura: "Gipuzkoan hamar hilabete bizitzeko zoria izan nuen herriarren familiekin batera, eta egunez egun haien bihotzaren berotasuna jaso ahal izan nuen. Pertsonaiei eta gertakizunei buruzko iritziak eman zizkidaten, askatasun osoz, eta uste dut hitz horiek balio dutela beste lurraldeetarako ere".

Bestetik, kronika

Eleberriko bitxi horretako tokiak, gertaerak eta pertsonak kokatzeko ikertzen hasi ahala, ikusi nuen gaiak ematen zuela nobelaren osagarri moduko bat prestatzeko. Sarean *arrantzan* hasi eta kontu polit asko bildu nituen berehala: argazki

zaharrak, Zumaiarekin lotutako albisteak, lekuko batzuen kontakizunak eta istorioak... Artxibategietan ere topatu nituen makina bat kontu interesgarri. Horregatik, ikerketan ikusitakoak kronika batean bildu ditut. Historian eta beste gai batzuetan aditua ez naizen aldetik, badakitenei galdetu eta informazioa laburbilduta zuen eskura jartzan ahalegindu naiz. Imanol Azkuek epilogoan dioen modura, iraganari lotzen lagunduko digun hari edo soka bat da hau.

Kronikaren bizkarrezurra osatzeko giltzarria izan zen garai hartan San Telmo ermitaren ondoko etxean bizi zirenen arrastoa ateratzea. Bereziki garrantzitsua izan zen gaur egun Pasaian bizi den zumaia bat ezagutzea, Pepita Urruzola,

argazki zahar eta istorio ugari jarri zizkidalako eskura. Horiez gain, II. Errepublika hasieratik eta Gerra Zibilera bitarteko garaia erakusgarri batzuk bildu ditut, batik bat 1932ko kontuak aztertuta, urte horretakoak deskribatzen dituelako eleberriak. Lehenbiziko Aberri Eguna antolatu zuten Bilbon, urte horretan inauguratu zuten Batzokia Zumaian, errepublikanoek aurreko urtean zabaldu zuten beren egoitza...

Garai hartara joan-etorri bat egitea proposatzen dizuet, beraz; aurrez eleberrian irakurritakoa zumaia arron begietatik ikustea. Bagoiak edukiz ondo beteta dauzkagu, eta zazpi geldialdi egingo ditugu, bakoitza gai pare baten inguruan. Prest bazaude, trena hartu eta abia gaitzen. ■■■

¹Georges Barbarin idazleaz gehiago jakin nahi izanez gero, bisitatu www.georgesbarbarin.com webgunea.

Liburuaren fitxa

- *Jesusa Gipuzkoakoa* (Georges Barbarin, 72 orrialde) eta *Joan-etorria gerraurreko Zumaia* (Xabier Azkue Ibarbia, 84 orrialde).

-Prezioa: 10€.

- Salgai dago Alondegian, Turismo bulegoan eta Zumaiaiko liburu dendetan (Aizpurua, Mandala eta Otaño).

- Oharrak bidaltzeko: xabier@azkue.eus



San Telmoko etxearen atarian (PEPITA URRUZOLAK UTZITAKO ARGAZKIA, ANDER HORMAZURIK KOLOREZTATUA)



denda:
Mendaro marinela, 1
tel.: 943-14 33 46

biltegia:
Jose M^o Korta Industrigunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943-86 11 17
fax: 943-86 13 30

industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak



**Juanjo
Larrañaga**
harakina
25urte
BALEIKEekin



943-86 06 21

“Arkitekto batek sentsibiltate puntua izan behar du eraikin erakargarri eta polita egiteko”

MAIALEN CALLEJA ARKITEKTOA

Maialen Callejak txikitatik izan du arkitekturarekiko pasioa. Umea zela eraikitzeke jostailuak zituen gustuko; Legoa eta Mekanoa, esaterako. Gauzak horrela, Arkitektura ikasketak hasi zituen Iruñean. 2012an Londresera joan zen, eta ordutik han bizi izan da, urte hasieran Shanghaira joan den arte. Printzipioz, urtebeterako kontratua du han gauzatuko duen proiektu batean lan egiteko.

Testua: **Izaskun Urbieto Esnal**. Argazkiak: **Maialen Calleja**.

Unibertsitatera joatea erabaki zenuenean ez zenuen zalantzarik izan Arkitektura ikasi nahi zenuela, ezta?

Nik uste 14 urtetatik nekiela Arkitektura ikasi nahi nuela; beraz, ez nuen zalantzarik izan. Gurasoek ere hala esaten didate, oso garbi nuela eta nabarmena zela zer nahi nuen ikasi. Nire iritziz, artearen eta ingeniartzaren arteko oreka perfektua da arkitektura. Alde batetik, zientifikoa da matematika eta fisikarekin oso lotuta dagoelako; baina, beste alde batetik, guztiz artistikoa da. Azkenean, arkitekto batek sentsibiltate puntua izan behar du eraikin erakargarri eta polita egiteko.

2012an, Iruñean ikasketak egiten ari zinela, Londresera joatea erabaki zenuen. Zergatik?

Betidanik gustatu izan zait bidaiaitzea, eta ingelese ongi ikasteko aprobetxatu nuen. Gurasoei esker aukera asko izan dut bidaiaitzeko eta ingelese ikasteko. Londresen, hizkuntza maila hobetzeko urtebete lanean ibili nintzen, eta ondoren ikasten jarraitu nuen Westminsterreko Unibertsitatean. **Ingalaterrako unibertsitateak garatuago daude arkitektura munduan?**

Sistema ezberdina dute. Espainian ikasketak oso teknikoak dira, eta liburu eta azterketen bitartez irakasten dute, gehienbat. Ingalaterran, berriz,

hasieratik lan munduarekin lotzen zaituzte, eta unibertsitatean diseinua bultzatzen dute. Hiru hilean behin *crit* izeneko aurkezpenak egiten genituen jendaurrean. Inguruko enpresa handi eta txikietako arkitektoak etortzen ziren eta iritzia ematen zuten. Azkenean, *networking* moduko egitasmo bat bihurtzen zen. Gainera, ni espezializatu naizen arloa, diseinu parametrikoa, pila bat bultzatzen dute Londresen. Espainian, ordea, nik dakidanez, oraindik ez da guztiz zabaldu.

Mamou-mani izeneko estudioan hasi zinen lanean...

Ikasketen bigarren urtean hasi nintzen, 2014an. Hasiera hartan estudioko sortzailea eta biok ginen langile bakarrak. Gaur egun, 10 pertsona ditu estudioak.

Baliagarria izan zait enpresaren sorreratik egotea. Azkenean, diseinatzeaz gain, enpresa bat eramaten ikasi dut: kontratuak egiten, bezeroekin harremanak sendotzen, diseinu taldeak eramaten...

Estudioa diseinu parametrikotan dago espezializatuta.


Bai, eta gaur egun, arkitektura munduan, atea zabalitzen ari den diseinu modalitatea da. *Parametric design* edo *computational design* izena du diseinatzeko modu horrek. Betiko *autocad* erabili eta marra bakoitza ia eskuz bezala marraztu ordez, sistema bat eraikitzen da.



Galaxiaren eraikuntza Nevadako Black Rock basamortuan.



Shanghaiko skylinea atzean duela.



Fabrikazio eredu ezberdinen aurkezpena egiten jendaurrean.



Galaxia eraiki aurreko probak egiten Londresko bulegoan.



Burning Man festibalean Galaxia eraikitzen parte hartu zuten kideak.



Galaxiak 20 metro altu zituen.



Tangential dreams eraikina erretzen.

Grasshopper izeneko software baten bitartez, diseinatzeko kodeak programatzen ditut, hasierako parametro batzuekin eta emaitza geometriko batekin.

Behin sistema programatuta, eta edozein momentutan, hasierako balioak aldatzen baditut, nire amaierako geometria guztia eguneratu egiten da; horrela, denbora aurrezten dut. Gainera, hasierako parametro horiek datu baseak ere jar ditzake. Laburbilduz, eraikin bat diseinatzeko infinitu parametro sar ditzaket; horrela, diseinatzen ari naizen eraikina optimizatu egiten dut; eta, aldi berean, analisi estrukturalak ere integratzen ditut.

Optimizazio sistema horiek programatuz, ordenagailuak milioika diseinu proba ditzake segundotan eta jarri dituzun helburuen arabera, erantzun egokiena aukera dezakezu. Hori guztia pentsaezina zen duela urte batzuk, eta inteligentzia artifizia erabiliz ordenagailuak laguntzen dit aukera egokiena hautatzen.

Nolako lanak egiten dituzue?

Gure proiektu gehienak diseinu garapenarekin batera doaz, eta azkeneko teknologia erabiltzen dugu. Proiektu konbentzionalagoak ere egiten ditugu, Westminsterreko Unibertsitatearen campus berria eta Londresen etxe baten eraberritzea, adibidez; baina beti jartzten diogu ezberdintasun puntu bat.

Normalean, esan daiteke gure proiektuak nahikoa zoroak eta ezberdinak direla. Esate baterako, diseinatu dudana azken proiektua Milango Salone De Mobile ekitaldian estruktura bat izan da: COS arropa markarentzat 3Dn inprimatutako instalazio bat. Horrekin batera, Burning Man festibalean hiru proiektu eraman ditugu, egurrezko torreak eraikitzen dituen robot bat diseinatu dugu Londreseko Arup ingeniaritza enpresan jartzeko, Parisen bi eraikin eraberritu ditugu eta Saudi Arabian ere zenbait proposamenetan aritu gara.

Horietako garrantzitsuenak agian Burning Man festibalerako egindako proiektuak izan dira, ezta?

Mamou-Mani enpresako proiektu handiena eta nazioartean entzutetsuena *Galaxia* izan da. Burning Man festibalak urtero leihaketa irekitzen du Gabonetan. Edonork proposa dezake bere diseinua, eta, gero, festibaleko arduradunek erabakitzen dute zein proiekturi eman dirua. Hala ere, *Galaxia* diseinatu baino lehen, bi proiektu txikiago eraiki genituen festibalerako, eta *Tangential dreams* izenekoak arrakasta handia izan zuen. Hori dela eta, iazko udaran *Templea* diseinatzea eskaini ziguten; festibalaren eraikin garrantzitsuenak da eta *Galaxia* proiektua aurkeztu genuen horretarako.

Zer da Burning Man festibala?

1986tik urtero Estatu Batuetan egiten den musika eta arte festibala da. Astebeterako 70.000 lagunek hiri bat eraikitzen dute Nevadako Black Rock basamortuan. Hiria komunitate bihurtzen da eta ez da dirurik erabiltzen. Jendeak denetik eramaten du eta dena konpartitzen da. Festibalak 10 printzipio ditu eta joaten den guztiak horiei jarraitu behar die. Gainera, hainbat pertsona ospetsu joaten dira festibalara.

Bertan bi eraikin nagusi daude: *The man* eta *Temple*. Lehenengoa larunbatean erretzen da, eta festibaleko festarik ikaragarriena egiten da. Igandean, berri, bigarrena erretzen da. Horren esanahia da nolabait, bizitzan gertatutako ezbeharrak alde batera utzi eta aurrera jarraitzea. Hasiera berria irudikatzen du. Hala, astean zehar, bertaratutako pertsonen gauza baliotsuak uzten dituzte bertan eta igandean suaren inguruan biltzen dira. Ekintza oso espirituala eta hunkigarria da.

Iaz, gure diseinua zenez, estudioko jabeak eta biok eman genion su 20 metro altu eta 40 metroko diametroa zeukan estrukturari. Nire bizitzako esperientzia garrantzitsuenetako bat izan zen, hor konturatu nintzen han zeuden pertsonentzat zenbateko balioa zuen eraikinak.

Nolakoa izaten da *Galaxia* bezalako eraikin bat egiteko lan prozesua?

Orduak sartzea izan da sekretua, baita lantaldearen konpromisoa ere. Gauza pila bat hartu behar da kontuan horrelako egitura diseinatu behar denean. Hasteko, basamortuaren erdian eraikitzen da, eta ez konstruktore enpresa batekin, boluntarioekin baizik. Gainera, hiru astetan eraikitzen den proiektu bat da.

Diseinatzeaz gain, eraikina muntatzeko lanetan ere ibili zara.

Hain zuzen, festibalaren ezaugarri bereizgarriena da proiektuak boluntarioekin egitea. Iazko edizioan 140 pertsona ibili ziren lan horietan egunean hamar bat ordu sartzen. Oso arraroa da arkitekto bat taladroa hartu eta torniloak sartzen ikustea, baina niri ikaragarri gustatzen zait, eta, gainera, asko ikasten da. Batzuetan, ordenagailuan diseinatzen dena ez da erraza eraikitzen, baina zure eskuekin egin behar duzunean asko ikasten duzu.

Basamortuan eraikitzeak kontuan hartu beharreko parametroak ditu?

Alde txarra hondoak ekaitzak dira. 110 km/h haizeak jasan behar dituzte eraikin horiek, baita denboraleak ere. Beraz, asko pentsatu behar da lurra nola ongi lotu. Gainera, han egoten diren pertsona askok eskalatu egiten dute eraikina, beraz hori ere kontuan hartu behar da.

***Tangential dreams* eraikinarekin sariren bat ere eskuratu duzue, ezta?**

Bai, *Architizer A+ Awards* saria eman ziguten. Arkitektura munduan oso sari garrantzitsua bihurtu da. Ohore handia izan zen guretzat irabaztea.

***Grasshopper* izeneko ikasketak ere egin dituzu. Zer da?**

Programatzeko eta geometria oso konplexuak sortzeko software bat da. Arkitektura lanaz gain, Simply Rhino enpresarentzat ere lan egiten nuen Londresen. Gainera, *Grasshopper* eta *Rhinoceros* softwarearen klaseak ematen ditut ikasleentzat, baita diseinu enpresentzat ere.

Badirudi gaur egungo arkitektura eraikin ikusgarriak egitera zuzenduta dagoela. Hori funtzionala da ala zer bilatzen da?

Nire ustez, arkitektura teknologiarekin batera aldatuz doa. Duela 100 urte ezin zituzten gaur egungo formak ez marraztu, ezta eraiki ere. Orain denetarik dago, eta asko optimizazio teknologia onenak erabilia diseinatuta daude.

Eraikinek ingurumenean izaten duten inpaktua ere garrantzitsua da gaur egun, baita eraikitzeo erabiltzen diren materialak ere. Horretan arreta jartzen duzu?

Bai, noski. Gaur egun arkitekturan dagoen gai garrantzitsuenetakoa da, eta asko hartzen dugu kontuan. Milanerako prestatu dugun instalazioan, adibidez, 3Dn inprimatzen ari gara eta horretarako erabiltzen dugun materiala PLA izeneko plastiko organikoa da: artoarekin egindako materiala da, guztiz naturala.

Shanghai joan zara urte hasieran. Zer proiektu dituzu han?

Printzipioz, urtebeterako etorri naiz UNStudio izeneko enpresa batean lan egiteko. Betidanik jarraitu izan dudana enpresa bat da; beraz, oso pozik nago hemen. Azkeneko teknologia erabiltzen dute diseinatzeo, eta eskala handian egiten dute lan. Berriki irabazi dute Australiako eraikin altuena izango den proiektua eraikitzeo lehiaketa.

Atzerrian bizitzeak zer aukera eman dizkizu? Kanpoan bizitzetik zer gustatzen zaizu gehien?

Jende ezberdin asko ezagutzea asko gustatzen zait, eta beste kultura batzuetako pertsonekin bizi behar duzunean asko ikasten duzu. Londresen, esaterako, futbolearen aritzen nintzen taldean 15 herrialdeko jokalaririk geunden.

Kanpora joateak, gainera, ausartago egiten zaituela uste dut. Azkenean erosotasunetik ateratzen zara.

Urte asko dira Zumaia tik kanpo.

Londresen nengoenean hiru hilean behin joaten nintzen Zumaia ra, baina orain Txinatik zail xamar izango dut. Familia eta lagunak asko estimatzen ditut, baita Itzurun ere. ■■■

ZUMAIAKO MERKATARIEN GINKANA

Zumaian bizi, Zumaian erosi

Maiztaren 20tik ekainaren 8ra

erosketak herrian egiteak

saria du

100 €-ko 3 erosketa bono

Lortu 4 zigilu eta parte hartu

EKAINAK 1, JUNIO

12:00-14:00 **TRIKITILARIAK** herrian zehar **EZTEN GIRO**

17:30-18:30 **KAPOEIRA IKASTAROA** Kofradian gaztetxoentzat

SENZALA EUSKADI KAPOEIRA

18:30-20:30 **TXARANGA ZUMAI**



Badator uda!

Eta udarekin batera, baita ospakizun mordoa ere!

Ekainak 8 Bizikleta Eguna

Ekainak 28-30 San Pedro jaia

Ekainak 30 Artisau azoka

Uztailak 31-abuztuak 11 Zumaiako Musika Jaialdia

Abuztuak 3 Gala Gaua

Abuztuak 9 Euskal Jai Eguna

Abuztuak 17 Kuadrila Eguna

Irailak 14 Triatloia

Irailak 21 Olarro Eguna

Argazkiaren egilea: L.M. Alkorta



Zumaiako Udala

Luzerako erregaia ezin erre

Jesus Mari Elustondo, bihurgune artetik

Zumaiako erdigunean dagoen gasolindegia bakarrari aurpegia jarri dio azken 30 urteotan Jesus Mari Elustondok (Zumaia, 1965). Hala egingo du etorkizun hurbilean ere. Gasolindegiairen historia luzeaz eta ogibideaz hitz egin du *Baleikerekin*.

Testua: **Julen Aperribai**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Autorik sekula hartu ez duenak ere ezaguna izango du, segur aski, zubi txikiaren alboko gasolindegia, izan noizbait haren aurrean, Fielatoan, norbaitekin hitzordua egin duelako, edo, besterik gabe, herriaren erdigunean dagoen gasolindegia bakarra delako. Urteak daramatza hala izaten. “1946an egin zen gasolindegia hau”, zehaztu du Jesus Mari Elustondok. Hark darama negozioa azken 30 urteotan, gutxienez. Ogibide bihurtu aurretik ere aritu izan zen hainbat urtez, ordea. Aitak heldu zion lehenik negozioari, 1955ean, eta, hura hil eta gero, beharrak eraman zuen Elustondo gasolindegira: “Adinean gora zihoan ama, eta ni geratzen nintzen hari laguntzen. Pixkanaka, gero eta ardura gehiago hartu nuen”. Garaiko agirietan arakatura izan du Elustondok gasolindegia ezarri zen urtearen berri. Agiri horiek diote urte horretan gasolindegia lekuz aldatu zela, ordea, eta badu susmoa lehenagotik ere gasolindegiren bat bazela Zumaian. Garai hura ezagututako en testigantzek ere hala baieztatu diote: “Esan izan didate Patxita Etxezarreta kalean zegoela, orain Kabi taberna dagoen inguru horretan. Gehienez ere zutoin bat egongo zen, orduan oso auto gutxi zeuden eta”. Egun zutik

dagoen etxolaren aurretik ere bazegoen beste bat, leku berean. Hura ezagutu zuen Elustondok. 1997an egin zuten obra, eta, eraikina berritzeaz gain, hornigailuan ere egin zituzten aldaketak. Tanke bakarra zuten ordura arte, eta bigarren bat sartu zuten. “Garai hartan gasolina erabiltzen zen, ‘superra’ deitzen geniona. 1992tik aurrera, ordea, indartsu sartu zen berunik gabeko gasolina”, azaldu du. Gerora, obra egin eta bi urte ingurura, “superra” gordetzen zuen tankea hustu eta gasolioa sartu zuten bertan, haren ordeaz. Hala mantentzen da hornigailua, gaur egun.

Erregaien prezioek eta merkatuak zehazten dituzte gasolindegietako aldaketak. Baita gizartean eman diren ohitura aldaketek ere. Adibidetzat jarri du ordainketa egiteko modua. 1994 inguruan hasi zen jendea kreditu txartelak erabiltzen, dioenez, eta gehienek horrela ordaintzen dute, gaur egun. Haietako askok autotik jaitsi beharrik gabe egiten dute. Bezero batzuen kreditu txartelen kodeak ere buruz dakizki Elustondok, onartu duenez: “Hamabi bat izango dira. Badute konfiantza nirekin, eta ordainagiria ere ez didate eskatzen”.

Izan ere, bezeroekin duen hartu-emanak badu garrantzia Elustondorentzat. Zerbitzu eroso eta gertuko tratua ematen ahalegintzen da.



irrimarra



Jendearekin tratu ona du, baina bezeroen jarrerari nabari du aldaketa azken urteotan: “Jende asko auto barruan geratzen da, mugikorrari begira edo laneko kontuei bueltaka. Ez dute deskantsatzen. Batzuetan, hitz egiteko aukerarik ere ez da egoten. Zentzu horretan, komunikazioa apur bat galdu da”. Bizimodu aldaketarekin lotu du joera hori. Bestalde, normaltzat ere badu, dioenez “zerbitzu azkarra” nahi izaten baitu bezeroak gasolindegian.

Lan lotua

Urteko egun guztietan izaten du zabalik gasolindegia Elustondok, jaiegunetan eta larunbat arratsaldeetan izan ezik. Lankide batek hartzen du zerbitzuaren ardura haren oporraldietan eta eguerdiko tarteetan. Lotura handia eskatzen duen lana da, baina, dioenez, “gustura” joaten da lanera. CEPSA petrolio enpresarentzat egiten du lan. Enpresa horrek hornitzen du gasolindegia, eta irabazien zati bat jasotzen du. Dena den, negozioa Elustondo berak kudeatzen du. Nagusirik ez du ezagutu sekula. “Egun batean lehenago etorri nahi badut edo ohi baino beranduago itxi, ez diot inori azalpenik eman behar. Lotua da, bai, baina onerako zein txarrerako”, azaldu du.

Eguna tarteka luzea egiten zaiola onartu du, baina nolabait betetzen du denbora; lan ikusezinak bai baitaude, autoei eta motorrei edaten ematetik harago: fakturak txukundu eta antolatu, hornitzaileekin hitz egin, bankura joan... Ordu hilak ere izaten dira etxolaren barruan, baina betetzen ditu nola edo hala, egunkariaren, telebistaren eta liburuen laguntzaz. Bezeroekin duen tratuak ere arintzen dio eguna; batzuetan gehiago besteetan baino. Bitxikeriak

Jesus Mari Elustondo

- **Adina:** 53 urte.
- **Ikasketak:** Azkar utzi nituen, amari gasolindegian laguntzeko.
- **Lanbidea:** Gasolina saltzailea.
- **Gasolina saltzailea ez banintz...** Ez dakit, baina tailer baten edo leku itxi batean, behintzat, ez dut imajinatzen neure burua.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Paseatzea eta laneko kontuetatik urruntzea. Familiarekin egoteko aprobetxatzen dut, batez ere.



ere ezagutu ditu, hainbeste urtean. Bereziki akorduan du duela 25 urte inguru gertatutakoa, igande gau batean. Urte haietan, baskula bat zegoen gasolindegia batean, kamioiak pisatzeko, eta lan horretan ere aritzen zen Elustondo. Bestelako erabilera bat eman zion, ordea, egun batean: “Telefonoz deitu zidaten gauean, 23:00ak aldean. Arroa Goiko Artetxe zen. Hark eta lagun batek euren burua pisatu nahi zuten, apusturen bat tarteko zela. Tomas taberna zegoen horretan saiatu omen ziren, baina hango baskulak ez zuen hainbeste pisu onartzen. Etxetik jaitsi eta baskulara joan behar izan nuen, biak pisatzera”.

Joera berriei adi

07:30ean zabaltzen du gasolindegia, eta erregaien prezioa zehaztea izaten du lehen eginbeharra. Petrolioak merkatuan duen momentuko balioaren arabera izaten da prezio hori. Prezio gorakadek ez diote laguntzen: “Gasolia zenbat eta merkeago egon, orduan eta hobeto da niretzat. Izan ere, bankuek ehuneko bat eramaten dute txartela ibiltzen dudana aldiro. Komisia handiagoa da, diru gehiagorekin”. Dena den, uste du prezioen gorabeherak ez diotela eragingo gehiegi negozioan; ezta Europako Batasunak dieselari ezar diezazkiokeen mugek ere.

Auto gehienak diesel bidez ibiltzen dira, oraindik ere. Hala dira hamar autotik zazpi inguru, Elustondoren arabera. Ez da askorik fio Europatik datozen gomendioez, eta uneen uneko joerekin lotu ditu: “Orain dela urte batzuk gasolioaren alde egiteko gomendatu zuten. Bestalde, 1992an, ikerketa batzuk zabaldu ziren, berunik gabeko gasolina kantzerigenoa izan zitekeela ziotenak. Joerak dira, nik uste”. Auto elektrikoa ere hasi da zabaltzen, pixkanaka. Egonkortu arte bide luzea ikusten dio, halere: “Ez dakit gasolindegietan zerbitzu hori eskaini beharko dugun noizbait, baina etorkizun hurbilean ez dut uste. Oso poliki aldatuko da”.

Aipatutako aldatetek non harrapatuko duten ez du garbi Elustondok; erretiroa hartzean gasolindegia zer ibilbide egingo duen ere ez. Etxean familiako negozioari errelebo eman go diezaioketenak baditu, baina ez du haiek horretara bultzatzeko intentziorik, azaldu duenez: “Seme bat eta alaba bat ditut, baina ez da nire asmoa beraiek lan honetara bultzatzea; euren erabakia da, eta beraiek erabaki behar dute etorkizunean zer nahi duten”. Momentuz, gasolindegia badu erregaia etorkizunari aurre egiteko eta bere historia luzea are gehiago luzatzeko. ■■■

BAZKIDE KLUBEKO ZOSKETAK



Juanjo Larrañaga: Elena Mata



On Gourmet: Arri Urbieto



Zelai talasoterapia: Nieves Alfonso (bere alabak jaso zuen oparia)



Ongizan: Carmelo Larburu

EKAINAK 10

Ardantzabide
altzariak:
hondartzako aulkiak.

EKAINAK 17

On Gourmet: lau
lagunentzako pizza
handia.

EKAINAK 24

Zelai talasoterapia:
zirkuitua bi
lagunentzat.

UZTAILAK 1

Itzurun taberna: lau
lagunentzako
jatordua.

ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiek jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

DESKONTUAK

ERTZ INFORMATIKA: %2ko deskontua.

ARRUTI MODA: %5eko deskontua.

IRUITZ ILEAPAINDEGIA: Analisi kapilarra doan.

UKENDU PARAFARMAZIA: %5eko deskontua.

EKIN ELEKTRIZITATEA: %10eko deskontua lanparetan.

EGOKI BITXIDENDA: %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

IRIONDO OPTIKA: Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

ENDAÑETA ETXETRESNAK: %5eko deskontua.

GOLDEN GATE AKADEMIA: %20ko matrikulazioan.

A3: %5eko deskontua.

TALAIA: ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

ARTAZA KANPINA URBASA: %10eko deskontua.

AIZPURUA LIBURUDENDA: Liburuak %5 merkeago.

OSKARBI KIROLDENDA: %5eko deskontua.

KALARI JATETXEA: Igandeko afaria %10 merkeago.

TRAPAIA: Igandeko bazkariarekin kafea doan.

KUKITXA: Erosketak etxera doan.

PRIMAVERA PIZZERIA: Pizzak etxera doan.



ZOZKETAK

ONURA: Fisioterapiako lau bono.

ONGIZAN: Fisioterapiako lau bono.

GAINDITUZ: Lau bono.

OTEZURI KAFETEGIA: Bi tarta San Markos.

MANDALA PAPERTEGIA: Bost euroko bost bale.

ITZURUN TABERNA: Lau lagunentzako afaria hilero.

BQD BIDAIAK: Lau bono.

ANTZERKIRAKO SARRERAK: Emanaldi bakoitzeko hiru lagunentzako bina sarrera.

SANAGUSTIN KULTURGUNEA: Kontzertuetarako sarrerak.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

Bazkide egiteko bideak:

Webgunean: baleike.eus/bazkidekluba

E-emailez: administrazioa@baleike.eus

Telefonoz: 943-86 15 45



GARBINE UBEDA

Non arraio

Bila itzazu irudi nagusian honoko
elementu hauek:



5
untxi



5
paperezko
itsasontzi



Irudi engainariak

Hamabi zati hauetatik bost irudi nagusitik hartuta daude eta gainerako zazpiak engainariak dira, hau da, antz handia izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Hamabost

Alde handia dago irudi nagusiko zuhaitzaren
eta goiko honen artean. Guztira 15
desberdintasun dituzte biek.
Ikusten al dituzu?

DOMINOAN

Marraz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.



Itzala

Zein da itzal
zuzena?



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

garay
manufacture

· 1989tik sukalde altzarietan lanean ·

HITZORDUA ESKATU ETA LANTEGIRA HURBILDU:
Olabidea aldea 1 (Errotaberri Industrialdea)
20.800. **ZARAUTZ** 943 13 31 09

www.garay.eus

GUK
DISEINATU ETA
EKOIZTUTAKO
SUKALDEAK

BASUSTA
erretegia · asador

José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaiá (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

EDU
ZUMAIKOA
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaiá, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16

EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

ekin
ZUMAIKOA, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaiá tel. 943-14 30 57
ekin@ekin.esl.com www.ekin.esl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓVIL**

ERNTÖ
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

ERTZ INFORMATIKA

Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza tel./faxa: 943-14 33 95

Galdona
burdindegia

Mendatorraren, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30

Garroa

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola
tel. 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!

goiko
bodegoia

Erribera, 9 · 943-86 13 91

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaiá
Tel.: 943-86 09 70

DOIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86

ilarri

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Depresioa II



ROSA AZKUE

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

Farmako bidezko terapia:

depresioaren aurkako farmakorik eraginkorrenei antidepresibo deitzen zaie. Nerbio sistemari eragiten diote, burmuineko zenbait substantzia kimikoren mailak (neurotransmisoreak) egonkortzea lagunduz; horrek hobekuntza dakar depresioa duten pertsonen gogo aldartean. Garrantzitsua da hau jakitea:

- Antidepresibo mota ezberdinak daude, normalean ondo toleratzen dira eta seguruak dira.
- Normalean, ez dute menpekotasunik eragiten.
- 4-6 aste behar izaten dira eragina izateko, eta aldi batez hartzen jarraitu behar da depresioa hobetu ostean, berriz ez gaixotzeko. Hau da, tratamendua hartzen hasi bezain laster ez ditugu efektuak igarriko.
- Tratamendua pertsona bakoitzaren ezaugarrien arabera doitu behar da, baina tratamendu "estandarrek" 6 hilabete inguru iraun dezake. Kasu bakoitzean, medikuak erabakiko du tratamenduaren iraupena.
- Albo ondorioren bat agertuz gero, garrantzitsua da medikuarekin kontsultatzea. Izan ere, ondorio horiek

normalean trata daitezke eta ez zaio utzi behar antidepresiboak hartzeari.

Terapia psikologikoa

(psikoterapia): esku hartzeko eredu desberdinak daude, psikoterapia hitzak barne hartutakoak. Horietatik, oro har, Terapia Kognitibo Konduktuala, esperientziadun profesionalek eskainitakoa, antidepresiboen bidezko tratamendua bezain eraginkorra da depresio nagusiaren kasuan.

Lehentasunezko tratamendu psikologikoa da depresio moderatuaren, larriaren edo iraunkorraren kasuan.

Terapia kognitibo konduktualak berezko eragin babeslea du, berriz gaixotzearen / errepikapenaren aurkako mantentze medikazioaren osagarria izan daitekeena.

Autolaguntza teknikak:

Autolaguntza tekniken bidez, depresioa duen pertsonari zenbait trebetasun eta ezagutza irakatsi nahi zaizkio, osasun arazoa hobeto bideratu ahal izateko. Hainbat modalitate daude, idatzizko materialak (biblioterapia) edo programa informatikoak erabiltzen dituztenak (irakurgai, ariketa praktiko edo bideoekin). Horien bidez, depresioa hobeto ezagutzen da, eta laguntza

jasotzen da depresioa gainditzeko jarduera batzuk praktikan jartzeko. Teknika horiek depresio arinean erabiltzen dira, batez ere, edo beste tratamendu batzuen osagarri gisa, depresio larriagoetan.

Garrantzitsua da gogoraraztea, edozein tratamendu hautatuta ere, seguruenik denbora igaro beharko dela tratamenduaren efektuak sentitzen hasteko. Gainera, batzuetan hasi eta denbora tarte bat igarota, aldatu egin beharko da, behar bezain eraginkorra ez izateagatik.

Sendatze prozesuak, normalean, ez du jarraitzen goranzko lerro zuzenik ("egunean baino egunean hobeto") eta gorabeherak oso ohikoak izaten dira ("egun txarrak" noizean behin), hautatutako tratamendua edozein dela ere.

Zailtasunak edo ondoeza bat-batekoak edo oso handiak badira, edo pertsonak depresio kasuetan kontuan hartu beharreko alarma seinaleren bat erakusten badu (suizidio ideiak, adibidez), balorazio medikoa eskatu behar da ahalik eta lasterren. Bestalde, aurretik aipatutako sintoma horiek sentitzean edo gertukoei igartzean, ez zalantzarik izan mediku edo profesional batengana jotzeko. ■■■



iriando optika

Kantauri plaza, 8. Zumaia, tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia, tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orotarako soinu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel.: 943-86 07 60

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77



ORRAZTEGI ZUMAI

943-86 20 83

KABI TABERNA




Potxitia Eteozarreta, 15
943-11 74 27

Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20



kalari

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

LABARRA TABERNA
ZUMAIA
est. 2016

Ondartxo plaza 5. Tel. 943-86 04 84



malauro

CROISSANTERIA



marina

pizzak
hanburgesak
bokatak...

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46



MENDI - ONDO S.L.

Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Alta Mari, 3 blokea tel. 943-86 16 91



LIDEN

eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com



NOIA S.L.

**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Etegabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industriagunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com



**OSA
BERNIZATUAK**

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 - tel. 943-86 14 12 - 686 36 41 49

Nola landu heriotza umeekin

DOLUA

**IZAR ARREGI**

GURASO ESKOLAKO PSIKOLOGOA

Batzuetan gaixotasun luze baten ondoren dator, beste batzuetan bat-batean. Jakin badakigu heriotza bizitzaren parte dela, saihestezina dela, baina sekula ez gaude halako kolpe latzari aurre egiteko erabat prest. Maite dugun horren galerak min sakona eragiten digu. Eta etxean haurrak badauzkagu, askotan ez dakigu nola jokatu, nola azaldu zer gertatu den, zer den heriotza.

Lehenik eta behin, guk geuk onartu behar dugu zerbait larria gertatu dela. Galera ez dut barneratuko negarrik egin gabe, tristurarik pasa gabe. Eta ez da ezer gertatzen umeek triste ikusteagatik. Ona da ni negarrez ikustea maite dudana pertsona hori joan delako. Ez ezkutatut, ez esan gezurrik umea babestu nahian. Umeak galdetzen badu erantzuna entzuteko prest dagoela esan nahi du. Azaldu zintzo galdetu duen hori. Umeak asko lasaitzen dira elkarrekin besarkatuta negar egindakoan. Gaixotasuna ez gainditzeko beldur hori konpartitzea ona da.

Heriotzaren dolurako pixkanaka presta ditzakegu umeak, bizitzan zehar sortzen diren dolu txikiagoak

aprobetxatuta. Adibidez, txakurra hil bada, edo aldameneko aitona hil bada. Kanean dauden eskelak baliatuta, edo inguruko baten hiletara banoa. Horren berri eman, lantzen joan. Heriotza ez ezkutatut.

8-9 urte dauzkatenean heriotzaren beldur ebolutiboa agertzen da. Ohartzen dira magia ez dela existitzen: Olentzero eta Errege Magoak gurasoak dira. Heriotzaz galdetzen hasten dira, estutu egiten dira, konturatzen direlako ez direla 100 urte bete behar hiltzeko, istripuak gertatzen direla, gaixotasun larriak daudela, haurrak ere hiltzen direla eta gurasoek ez dutela magiarik hori konpontzeko. Inguruan heriotza gertatzen bada, horren beldurra dator.

Normalean lehen heriotza aitonarena edo amonarena izaten da. Aita eta ama oso triste ikusten dituzte eta horrek oso triste jartzen ditu. Lehen aldiz joaten dira tanatoriora, lehen aldiz ikusten dute hildakoa. Garrantzitsua da

**HAR DEZATELA PARTE
ERRITUETAN, BERAIE
ERARA, BEHARTU GABE**

haurrek parte hartzea erritu horietan. Ezin bada, gehiegizkoa dela irudituz gero, hurrengo aukeran saiatu. Hiletara eramatea ere ez da txarra.

Ezin bada, beste estrategia batzuk erabili: amamaren eraztuna daukat kutxatxo batean; aitonaren gustuko lore batzuk hartu ditut mendian, lehortu eta gorde egingo ditut; korrika irabazitako domina aitarentzat izango da... Azken finean, heriotza horren aurrean haurraren adierazpen bat beharrezkoa da barnera dezan. Agian oraindik hitzik ez da egongo, baina detaileak dira, keinuak. Txuleta jaten ospatuko dugu heriotzaren urteurrena hildakoaren gustuko zelako.

Haurrak maite duen pertsona horren heriotzaren berri gertuko batek esatea komeni da, eta lehenbailehen, inguruan aldaketa arraroak sumatzen hasi aurretik. Izan dezala nahi duen erreakzioa, eta jakin dezala onartuko dugula eta alboan izango gaituela. Har dezatela parte errituetan modu batera edo bestera, beraien erara, behartu gabe. Ez eman esperantza faltsurik eta lagundu emozioak agerrarazten. Galdetzen duenari erantzun, erakutsi laguntza eskatzen eta azaldu berak ez duela ezeren errurik. ■

PUBLIZITATEA



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaiz, 1 Tel. 943-14 31 12
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Korta Indusirigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: **943-86 13 25**
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53



SOLOZABAL
autoeskolak

Etkezaretan, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

talaia
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Talaia
taberna

Embera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



Izurtari, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (kadilloa)
Saltxitxak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 behean Tel. 943 573 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xanti
ALTZARIAK

Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtziariak.com

yoana
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behean
943-14 32 78



Zalla



- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urtza Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com



BASADI, 12
20750 ZUMAIA
tel. 94386 10 18 / Fax 94301 61 26

Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia



Alai auzategia • 20750 Zumaia • tel. 943-14 34 41 • faxa 943-86 51 61

BALEIKEK
25 urte

zatoz gurekin ospatzera



Historia errepikatu egiten da

Gero eta sarriago hitz egiten da gizakion jardueraren ondorioz atmosferara isuritako gasek berotegi efektuan eragindakoez eta berotze horrek ekarritako klima aldaketaz. Ez da hain ezaguna, ordea, gas haietako batzuek itsasoan disolbatzean sortutako azidotasun prozesua. Biak ala biak egun egiazta daitezkeen gertakariak dira, eta, Itzurungo labarretan irakur daitezkeen bezala, jakina da duela 55,8 milioi urte inguru ere gertatu zirela..


tzurun hondartzara jaisteko goiko zabalgunean, A07 adierazten duen karteltxo dago horman iltzatuta. Aldameneko flysch geruza ezagunekin alderatuta, Talaimendiko igoeran hasten den horretan, bistakoa da itsaslabarraren zati hori ezberdina dela. Izan ere, tarte batez, gure itsasertzeko paisaia definitzen duten kareharritzko xafalak desagertu egiten dira, eta horien tokian gorri koloreko buztin zerrenda bat ageri da. Gune zehatz horretan ikertzaileek Paleozeno eta Eozeno aro geologikoen arteko muga antzeman dute, eta hor aurkituko dituzte atmosferak jasan zuen beroketa izugarri baten eta itsasoaren azidotzen ziklo baten zantzuak.

Dirudienez, garai hartan atmosfera karbono dioxidoz (CO₂) eta metanoz (CH₄) bete zen, eta gas horiek negutegi efektu handia eragin zuten. Horrenbestez, tenperatura bospasei gradu igo zen, eta, orain gertatzen ari den bezala, Lurraren klima aldatu egin zen. Alabaina, klimarena ez zen izan aldaketa bakarra; izan ere, itsasoan pH-a jaitsi egin zen, azidoagoa bihurtu zen, eta izaki

Testua: **Gonzalo Torre.**
Argazkiak: **Gonzalo Torre eta Wikipedia.**



Paleozenoaren eta Eozenoaren arteko mugaren gunea, Itzurungo labarretan.



Foraminiferoak zelula bakarreko organismoak dira. Gehienak itsasoan bizi dira eta oskol karetsua dute CC *United States Geological Survey*.

oskoldunek bizirik irauteko baldintzak erabat okertu egin ziren. Zergatia geroxeago azalduko dugu, baina orain aurreratuko dugu foraminifero bentoniko (itsas hondoko sedimentuetakoak) asko behin betiko desagertu egin zirela.

Atmosferara isuritako emisioek 10.000 urte inguru iraun zuten, eta, apurka-apurka, egoera orekatura berriro heltzeko, 100.000 urte behar izan ziren.

Eta itsasoa, nola bihurtzen ari da azidoa?

Prozesua uler dezagun, oinarritzko kimikari errepasotxo emango diogu. Ura izan daiteke azidoa, neutroa edo basikoa. Zenbat eta hidrogeno disolbatu gehiago eduki, ura azidoagoa izango da, eta kimikariek maila hori neurtzeko pH-a erabiltzen dute. Hala, urak pH-a 7 baino baxuagoa baldin badu, azidoa izango da, eta altuagoa bada, berriz, basikoa. pH-aren balio neutroa 7 da.

Normalean, ozeanoaren pH-a 8,0-8,3 arteko balioetan egoten da, eta karbonoaren ziklo naturalari esker orekan mantendu da milioika


urtetan. Hala ere, XVIII. mendeko industria-iraultzatik hona, atmosferako CO₂ maila handitu egin da: 250 milioiko parte izatetik, 415 milioiko parte izatera pasatu da, eta oreka galdu egin da. Izan ere, itsasoek gas hori xurgatzeko gaitasun oso handia dutenez, atmosferako karbono dioxido estraren laurden bat ozeanoetan disolbatu da, eta azido karbonikoa sortu da. Uretan, baina, azido karbonikoa bi ioietan dago disoziatuta, alde batetik ioi bikarbonatoa, eta, bestetik, ioi hidrogenoa. Azken ioi horren

kontzentrazioa igo denez, oreka hautsi egin da, uraren pH-a jaitsi, eta itsasoaren ura azidoagoa da.

3. irudian, karbonoaren oreka kimikoaren ekuazio dinamikoa ikus daiteke: edozein gaitan aldaketa bat gertatuz gero, egoerak beste aldera egingo du. Hau da, CO₂ sartzen bada, oreka lortzeko azido karbonikoa sortuko da; eta alderantziz, azidoa gehituz gero, sistemak “ezkerretara” egingo du, CO₂ sortze aldera, hain zuzen.

Etenaldi nabarmenik gabe, azken 150 urteetan ozeanoaren pH-a hamarren bat jaitsi da; eta behar bezala txikia badirudi ere, zifra horrek itsasoaren azidotetasunaren % 30eko igoera

OZEANOAREN AZIDOTZEA



UK Ocean Acidification Research Program-aren webgunetik moldatuta.

adierazten du. Adibide bat jartzearen, hainbat ugaztunetan, odoletan halako jaitsiera batek koma egoera eragin dezake.

Ozeanoen azidotetasunaren ondorio biologikoak

Itsasoko izaki gehienak ingurune egonkorretan bizitzera daude egokituta, eta bizi baldintzak aldatzen direnean, ondorio larriak (eta, sarritan, itzulezinak) izan ohi dira. Orduan, itsasoetan gehiegizko karbono dioxidoa disolbatzen denean, ingurunekeo ioi bikarbonatoa azido karbonikoa osatzera bideratzen da, eta, nolabait esateko, beste hainbat erabileratako bahituta gelditzen da. Esaterako, karbonatoaren faltan, fitoplanktoneko alga askok, koralezko arrezifeek, moluskuek, krustazeoek edota ostarrenek, maskorrak edo kanpoko eskeletoak eratzeko zailtasun handiak dituzte.


Parentesi bat eginda, horixe da, hain zuzen, Paleozenoko bizidun askori gertatu zitzaiena; hazteko karbonato eskuratu ezean, ale kopurua murriztu egin zuten edo desagertu egin ziren. Era berean, izaki horiek utzitako sedimentu karedunak falta dira, eta, Itzurungo geruza gorria testigu, horien lekuan buztina besterik ez da aurkitzen.

Bestalde, azidotetasunak metabolismoaren hainbat prozesu ahultzen ditu, hala nola, fotosintesia, elikadura, arnasketa edo ugalketa. Horrenbestez, itsas ekosistemek produktibitatea galduko dute, aberastasun biologikoa txikiagoa izango dute, eta aldaketei aurre egiteko duten gaitasuna murriztuko da. Modu berean, piramide trofikoaren katebegi asko kaltetuta izango dira.

Etorkizuna

Iragarpenak ez dira baikorrak, azidotetasuna gehiago jaitea espero da, eta 2100. urtean pH-a 7,8ko balioan koka daiteke. Azken 20-25 milioi urteetan inoiz ez da halako aldaketa bortitzik eman, itsasoan ura ez da hain azidoa egon, eta zaila da etorkizunean zer gertatuko den aurreikustea.

Hala ere, laborretan grabatutako historiak garbi erakusten du egoerak ez duela erraz atzera egingo, eta nekez bueltatuko dela toki berdinerara. Gainera, joera bihurtzeko denbora agortzen ari da, nonbait; izan ere, IPCC edo Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldeko adituek hurrengo hamar urteetan jarri baitute muga. Ordurako, ondorioak itzulezinak izan ez daitezen, berotegi efektuko gasen igorpenak 350 milioiko parteetan egonkortu beharko lirarteke. Hortxe, bada, guztion erronka. ■■■



1700. urtetik 1990. urtera arte itsasoko azaleko ph-aren gutxikuntza. Ur hotzetan handiagoa izaten da. Plumbago CCBY-SA 3.0

**KLIMARENA EZ ZEN
IZAN ALDAKETA
BAKARRA; IZAN ERE,
ITSASOEN PH-A JAITSI
EGIN ZEN**

**ITSASOKO IZAKI
GEHIENAK INGURUNE
EGONKORRETAN
BIZITZERA DAUDE
EGOKITUTA**

BALEIKE

25 URTE



EKAINAREN 14tik 23ra

ERAKUSKETA OXFORD ARETOAN

EKAINAREN 22an 22:00etan, KONTZERTUA MARI KALEAN

JOSEBA IRAZOKI ETA LAGUNAK

23:30ean, KOFRADIAN

DJ MAITX

LAGUNTZAILEA



Zumalako Udala

BK25
BALEIKE

Maria Axun Albizu Urteaga, lili eder bat



IMANOL AZKUE

ARGAZKIAK: MARI AXUN ALBIZUK UTZIAK

Nik 14 urte neuzkan. Donostiara joanak ginen, Euskaltzaindiaren D tituluaren (oraingo EGaren) azterketara. Han, beste bi zumaiarrekin egin genuen topo; bat Mari Axun Albizu zen, eta bestea Juan Ignazio Mendia apaiza. Orduan ezagutu nuen, eta ordutik, euskararekin lotu izan dut; gaurko elkarrizketaren ondoren, are gehiago.

1946an jaio zen, San Pedro kalean, eta hiru ahizpatan gazteena da. Gurasoak Maria eta Joxe Kruz zituen; ama Konfiterozarrenekoa, eta aita San Telmo kaleko Juli Ximoneneko. Haurtzaro atsegina du gogoan: “Ez geneukan ezer, baina oso gustura bizi ginen; etxea txikia zen, baina denok kabitzen ginen, eta kanpotik etortzen zirenak ere sartzen ziren; orain etxe ederrak daukagu, baina ez da nahikoa...”, dio. Gurasoak alaiak ziren, eta irratian musika entzunez gero, aita dantzan jartzen zituen, “Benga, umeak!” esanda. Gogoan du bereziki aita euskara nola lantzen zuen: “Gurean liburu askorik ez, baina bazen *Euskal Gramatika*, pasilloko apal batean, eta noizbehinka aita hartzen zuen,

errepasatzeko... Oherakoan, haren jolasak izaten ziren abestiak eta kontu txikiak: ‘Eragiozu eskutxoari...’; komunio txikia egin behar zutenean ere, apaizari eskatuta, aita azkenean lortu zuen euskarazko doktrina. Egun berezietan, abestu egiten zuten etxean, leihoak zabalduta, eta auzokoak ere gustura: “Metroko Julik esaten zigun: ‘Maritxu, ¿cuándo vais a empezar a cantar?’”. Aita ekiten zion, “Jeiki-jeiki, euskotarrak...”, eta haren atzetik guztiek. Familian badute kanta bat bereziki estimatua, askotan abesten dutena: “Edozein ospakizunetan, bazkaritan, aita esaten zigun jaikitze eta ‘Lili eder bat’-ekin hasten ginen beti, hiru ahotsetara; horixe da gure kanta, eta oso presente egon da gure bizitzetan”.

Maria eta Jose kolegioan ikasi zuen, “Erdaraz. Pagokoak eta debaldekoak geunden. Pagokoek uniformeak zeukaten, urdina, eta debaldekoak bata

GUZTIRA HAMASEI URTE EGIN ZITUEN IRAKASLE, BAINA ETORKIZUN ILUNA ZEUKAN IKASTETXEAK

beltza, kuello zuriarekin”. Kanean erdaraz ere hitz egiteko joera bazeukaten, baina etxeko entradan sartu orduko, dena euskaraz. Jolasean neska eta mutil elkarrekin ibiltzen ziren: trenadioska, kukuka, azakaponetan, kromotan... Diru pixka bat baldin bazuten, akordatzeko da Sorazurenera (Alpargateroenekora) joaten zirela: “Laranja *tokatuak* [mailatuak] izaten zituen, aparte jarrita, eta zer txanpon geneukan, ematen zigun, eta laranja haiek, erditik moztuta... ederrak!”.

Oinarrizko ikasketak egin ondoren, “Comercio” ikasi zuen, kolegioan bertan: kontabilitatea, administrazioa, takigrafia, frantses komertziala... Bukatu zuenean, 17 urterekin, Otañoneko drogerian hasi zen, eta han egin zuen lan Juan Mari Zearretarekin ezkondu zen arte. “Orduan, ezkontzeko, emakumeak lana laga egin behar. Marka da, gero!”, dio. Badaezpada ere, “Servicio Social” ateratu zuen, nonbaiten lanean hasi behar bazuten ere, baina gero ez zuen haren beharrik izan.

1974an, bizitzaren norabidea markatuko zion aukera sortu zitzaion. Maria Pilar Beobide



Albizu-urteagatarrak Ibañarrietan, 1950eko maiatzean, Rebeca lehengusuarekin.



Albizu-urteagatarrak Arritokietan, lehengusu baten "meza berria" zela eta.

Ameriketatik etorri eta komentatu zion Jon Oñatibiak euskara zabaltzen hasi nahi zuela eta Donostiako Seminarioan ikastaro bat egiteko. "Ordurako bi ume txiki neuzkan; gizonari komentatu eta esan zidan 'Orain zertarako hasi behar duzu?', baina 'Zergatik ez, ba?', esaten nion neure buruari, eta han joan ginen lau zumaia". "Euskara irrtiarene bidez" metodoan trebatzen aritu ziren, eta ondo gogoan dauzka oraindik orduko abestiak. Hura eginda, abisua etorri zitzaion Arrangoletan [eskola nazionalen] euskara eman behar zela, Oñatibiaren metodoarekin, eta animatu egin zen; klaseak irrti bidez ziren, baina Arrangoletan irratirik ez

eta Eugenio Arrizabalaga alkatearekin hitz eginda, hark esan zion Gajatenean enkargatzeko zazpi irrti, eskolarako. "Klasea ordubete besterik ez zen, baina zerbaitekin hasi beharra zegoen! Irratsaioa hasten zen: 'Goazen denok batera euskara ikastera...'", dio barrez; urtebetez aritu ziren.

Handik denbora batera, 1976an, hirugarren umea izan berritan, beste aukera bat sortu zitzaion, San Pedro ikastetxean, Ubillosen: "Mertzedarioek alde egin behar zuten, gurasoek nahi zuten eskolak aurrera egitea eta euskara ematea... Eta han hasi nintzen, lehen mailatik zortzigarrenera, euskara klaseak ematen". Pixkanaka, gainera, metodoa bere erara moldatu zuen; klase bereziak ziren: "Gela berean, bi talde egiten nituen, euskaraz bazekitenak eta ez zekitenak, eta euskara desberdin landu; ipuinak eramaten nizkien, eta etxean, haiek prestatzen, batzuetan goizeko ordu biak jotzen zizkidaten". San Pedro ikastetxea B ereduakoa zen, baina 1989tik txikienekin dena euskaraz ematen hasi ziren, eta beste ikasleekin asignatura batzuk ere bai. Gainera, bestelakoak ere egiten zituzten euskaraz: irratsaioak, abestiak, antzerkia, bertsoak..., eta oraindik ere gordeta dauzka grabazio haietako batzuk,



Ezkontza batetik irtendakoan, estratan behera.

kasetetan, txukun-txukun. Klaseak eman ahal izateko, hasieran ez zeukan titulu ofizialik, eta Euskaltzaindiaren D titulua atera zuen, 1979an; horretan asko lagundu zion Maria Jesus Golmaio lagunak.

1987an minbizia etorri zitzaion, eta lana laga egin behar izan zuen denboraldi batez, baina ordezeko ona aurkituta: Arritxu Iribar. Beste irakasleak ere gogoan dauzka, baita beraien arteko giro ona ere. Gainera, akordatu da nolako barne borroka izan zuen euskara batuarekin. “Gipuzkeratik batura pasatu beharra... Batzuek ez zuten nahi, beste batzuek bai, beste

batzuei ez zitzaien inporta... eta zer egin? Batua sartzea inposaketa bezala ikusten genuen. Kosta zitzaidan, baina batuaren alde egin nuen”. Familia batek ez zuen onartu eta adierazi zioten ez zutela h-a erabiliko; beste askori, berriz, esplikatuz behar izan zuten euskarak bere ortografia zeukala: “Idazten zuten *artuchut*, eta nik erakutsi behar hartu ditut zela”.

Guztira hamasei urte egin zituen irakasle, baina etorkizun iluna zeukan ikastetxeak. Udalak ixteko asmoa zeukan, gero eta ume gutxiago zetozkien, neskak ere hartzen hasi ziren, baina... Azkenean,



1948ko ekainaren 29an, San Pedro egunean, hiru ahizpak.



1946an, Moilan. Mari Axun amaren besoetan, eta Manolita eta Guadalupe ahizpak.



Santa Ageda bezperan, San Pedro ikaastetxearen aurrealdean, ikasle talde batekin.



5. mailakoekin, Estazioan, trena hartzeko zain. Donostiara zihoazen, antzerki emanaldia eskaintzera.

1992an itxi zuten. “Negar pila bat egin nuen. San Pedrok izugarri markatu ninduen”.

Minbiziaren ondorioz, bizkarra erasanda geratu zitzaion, eta kanpoan lanik ez egitea erabaki zuen. Baina batzuetan etortzen zitzaizkion laguntza eske, euskararekin laguntzeko, eta klaseak ematen jarraitu zuen etxean. Irakasle sena ez zaio apaldu, ordea, eta

agerian geratu da bilobak aipatu dituenean; zortzi dauzkate, “zein baino zein ederragoak!”, eta gazteen hizkera mintzagai, “ahal horren gaitza”-ri heldu dio: “Sartu zitzaigun, denerako *ahal* eta *ahal*, eta *baleike* baztertu: *joan ahal dut*, *egin ahal duzu...*”.

Afizio handienetako bat abestea izan du, eta pena badauka: solfoea edo pianoa ez ikasi izana. Irakurtzea ere asko

gustatzen zaio; oso atxagazalea da, eta anekdota polit bat ere badauka: “Behin, etorri zen Atxaga, *Nevadako egunak* libururekin, eta esan nion: ‘Makina bat negar egin nuen nik, ba, zure libururekin’, eta hark ‘Bai? Zeinekin?’, eta nik ‘*Bi anairekin*. Bukaera hura... Txikituko zintudan!’; eta esan zidan pozten zela halako sentimenduak sorrarazteaz”. Aurten, ezkontzaren urrezko ezteiak izan zituztenean, “oso opari berezia etorri zen gurera; ireki nuen eta *Bi anai* zen, Bernardo Atxagaren dedikatoriarekin... Iloba joan omen zen Atxagarengana, beste liburu batekin, dedikatze eskatzera, eta azaldu zionean norentzat zen, hura bizia izan,



Seme-alabekin Indamendin, 1981eko otsailean.



Zearreta-albizutarrak, Artadin, 1999-07-18an. Ezkerretik eskuinera, Jon, Mari Axun, Juan Mari, Mari Axun eta Joxe Kruz.

akordatu, eta esan omen zion 'Liburu hau ez, nik emango dizut bat, nirea, etxean daukadana', eta *Bi anai* eman zion, dedikatuta. A zer poza eta oparia!". Komentatu diot errematea izango zela Atxagak bukaera propio aldatzea beretzat, eta begiratu omen zuen, begiratu ere, liburuaren amaieran... Baina ez, ez omen zuen ezer gehiago idatzi. Eta hau ere bukaerara iritsita, nik ere zergatik aldatu bukaera edo gehiago idatzi? ■■■

Zure ametssetako bidaiak



Erribera kalea, 5 · 20750 ZUMAIA
943-84 53 96
zumaia@bqdbidaiak.com



**Baleikeren
bide-lagun**

KULTURA

Sei sokako poliedroa

MUSIKA

TESTUA ETA ARGAZKIA:

JUAN LUIS ROMATET

Gaur egungo euskal musikako pertsonaia interesgarrienetako bat da Joseba Irazoki (Bera, 1974). Bere abestietan folka eta abangoardia, New York eta Baztan, barealdia eta ekaitza, hori guztia eta gehiago uztartzen dituen musikari poliedrikoa, eta aparteko gitarra jotzailea da nafarra.

Urte luzez Euskal Herriko undergroundean mugitu ondoren, azken urteotan ikusgaitasun handiagoa lortu du, gehienbat ETBko *Tumatxak* telebista saioan agertu ondoren. Programa horretan euskal kanta ezagunak bere galbahetik pasatzen zituen, abesti klasikoei forma berritzaileak emanaz.

Ibilbide luzea du, baina, Berakoak. 2004tik hona atera dituen 18 diskoek hala erakusten dute. Bere izenean ez doazen disko askotan ere aurki daiteke, ordea, bere gitarraren oihartzuna: beste zenbait musikari edo talderen gitarra jotzailea ere izan da Irazoki, besteak beste, Duncan Dhu, Nacho Vegas edota Rafael Berriorena. Horiez gain, Petti eta Etxeko Uzta, eta Atom Rhumba taldeetako kide, edo *Bas(h)oa*n proiektuko partaide ere izan da, Beñat eta Julen Achiaryrekin batera.



Joseba Irazoki Audience taldearekin, Donostiako Le Bukowskin, 2017ko otsailean.

Ez da geldirik egotekoa. *One man band* formatuan rock-blues kubista, zoroa eta ikonoklasta jotzen ez duenean, lagunei deitzen die Joseba Irazoki eta Lagunak proiekturako. Eta zer lagun! Euskal musikako *dream teama* biltzen du bere inguruan. Lagunen lehen diskoan (*Joseba Irazoki eta Lagunak*, 2014) Felix Buff (Willis Drummond), Jaime Nieto (Atom Rhumba), Ager Insunza (Audience) edo Iban Urizar (Amorante) zituen bidaide. Iazko azaroan argitaratu zuen

bigarren diskoan (*Zu al zara?* Bidehuts, 2018), berriz, Buffek, Nietok eta Borrokan taldeko Ibai Gogorzak osatu zuten taldea. Formazio horrekin dabil orain biran.

Joseba Irazoki sarritan izan da Zumaian azken urteotan zuzenekoak ematen, gehienbat bakarlari moduan. Ekainaren 22an, ordea, Lagunak taldearekin izango da Baleikek bere 25. urteurrenerako antolatutako kontzertuan. Emanaldia 22:00etan izango da, Mari kalean. Prest egon rock'n'roll ekaitzerako! ■■■

AGENDA

ERAKUSKETAK

MAIATZAK 31-EKAINAK 11

Pintura tailerra.

EKAINAK 14-23

BALEIKE 25.urteurrena.

EKAINAK 26-UZTAILAK 14

Ander Hormazuri.

EKAINA

1 LARUNBATA

Kadeteen txirrindulari lasterketa.
10:30ean.

Liburuaren aurkezpena: "Endañeta".
Oxford aretoan, 12:30ean.

Omenaldia: Endañetari, herri kirol saria.
Odietan, 18:30ean.

2 IGANDEA

Nagusien Astea: 89 urtekoei omenaldia.

7 OSTIRALA

Ludotekaren festa.
Eusebio Gurrutxaga plazan, 19:00etan.

Antzerkia: Zurrumbiloen + Entre
Comillas, Katapulta Tourraren barruan.
Oxford aretoan, 22:00etan.

8 LARUNBATA

Bizikleta eguna.

9 IGANDEA

Dantzari Txiki eguna.

12 OSTEGUNA

Musika Eskolaren jaialdia.
Oikian, 18:30ean.

13 OSTIRALA

Musika Eskolaren dantza emanaldia.
Odietan, 18:30ean.

14-16

Alai auzoko festak.
Ekainak 15: *Motor festa.*
Alai auzoan.

Ekainak 16: *V. umeen duatloia.*
Alai auzoan, 11:30ean.

19 ASTEAZKENA

Flysch Trail hitzaldia: *Nordic walking.*
Oxford aretoan, 19:00etan.

20 OSTEGUNA

Flysch Trail proiektzioa: *¿Y si te dijera que puedes?*
Aita Marin, 19:00etan.

Musika Eskolaren kurtso bukaerako jaialdia.
Behoko plazan, 19:00etan.

21 OSTIRALA

Flysch Trail hitzaldia: *Objetivo 8.000,* Sebastián Álvaro.
Aita Marin, 19:00etan.

22 LARUNBATA

Nordic walking Eskala eta Orienting.
10:30ean.

Flysch Trail aurkezpena.
Aita Marin, 19:00etan.

23 IGANDEA

XI. Flysch Trail mendi lasterketa.
08:30ean.

San Juan gaua, dantzari eta txistulariekin.
Ekhi gaua.

28-30

San Pedro jaiak.
Ekainak 28 edo 29: *Zesta punta jaialdia.*

Ekainak 28: *Herri mailako esku pilotako txapelketako finalak.*
18:00etan.

Ekainak 29: *Herri mailako esku pilotako txapelketako finalak.*
18:00etan edo 18:30ean.

30 IGANDEA

Artisau azoka.

BIYONA
BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA
943-14 34 43
www.biyona.net

SUKALDEAK

Bainugelak

ETXEKO ALTZARIAK

Papel pintatuak

LEIHOAK

Keramika

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Sentimenduak azaleraziz



GERRAK EZ DU EMAKUME AURPEGIRIK

Egilea: Svetlana Aleksievich
Argitaratzailea: Elkar
Argitaratze urtea: 2017
Orrialdeak: 286
Generoa: Narrazioat



TESTUA: ASIER ARAKISTAIN

Gerrak ez du emakume aurpegirik lan ikaragarri gordin honetan, Svetlana Alexievich, 2015eko literaturako Nobel saridunak, urte luzez ezkutuan edo isilarazita zegoen gai bati heldu dio maisutasun handiz, II. Mundu Gerran borrokatu ziren milaka emakumeen sentimenduak zein egoera pertsonalak azalaraziz.

Gerrak gizonezkoek sortzen dituzte eta gizonezkoak izaten dira gerra liburuak idazten dituztenak, betiere ikuspegi oso maskulinoetatik. Ohoreaz, ausardiaz, heroiez... mintzo dira liburu horietan, eta horregatik, hain zuzen, gerra gorroto duen idazle honek gerrari buruzko liburu bat idazteari ekin zion, bestelako ikuspegi bat emateko asmoz, gertuagoa, humanoagoa, idazleak liburuan dioen bezala: "Niri ez zait gertaera bera interesatzen, sentimenduen gertaerak baizik".

II. Mundu Gerran millioitik gora emakume borrokatu zen

armada sobietarrean, batzuk frankotiratzaille, beste batzuk tankeetako gidari, beste batzuk infanteriako soldadu zein lehen lerroko sorosle. Svetlana Alexievich emakume horien bizipenak jaso ditu liburu honetan, 1978. urtetik 2004ra bitarte, Sobietar Batasuna zeneko lurralde osoan zehar, ehunka, milaka testigantza jasoz. Ahotsik gabekoei ahotsa emanaz.

Bi lerro nagusi ditu Alexievich liburu honek: batetik, testuingurua bera, ekialdeko frontean izan ziren borroka odoltsuak, baina ez dugu bertan epikotasunik aurkituko, gerrak berarekin dakarren miseria baizik, heroismotik urrun dauden egunerokotasuna, zikinkeria,

hotza, gosea, beldurra...; bestetik, eta nagusiki, gerran parte hartu zuten milaka emakumeren bizipenak jasotzen ditu lan honek. Nola gerra hasi berritan armadak ez zituen onartu nahi, nola behin armadan sartuta beraien feminitatea ukatzen zieten, eta ulertzea nola gerra bukatutakoan, gainerako soldaduak heroitzat hartzen zituzten bitartean, beraientzat mespretxua besterik ez zegoela ordainetan, gerran borrokatu zirela esatera ukatzeraino.

Gerra bukatu eta hogeita hamar urte igaro behar izan ziren Sobietar Batasunak emakume hauen lana goratu eta merezi zuten omenaldia eskaintzeko.

Benetan liburu gordina da gaurkoan gomendatzen duguna, baina nahitaez irakurri behar diren horietakoa, liburuko pasarte batean dioen bezala, "Deabruari ispilua erakutsi behar zaio, ez dezan pentsa ikusezina dela eta ez duela bere ekintzen arrastorik uzten". ■■■

**GERRAN PARTE HARTU
ZUTEN MILAKA
EMAKUMEREN
BIZIPENAK JASOTZEN
DITU LAN HONEK**

Heriotza



IRUNE ARANGUREN BARRAGAN

Jaiotzen garenean gure bizitzari buruz daukagun egia absolutu bakarra hauxe da: hil egingo gara. Orduan, denok jakinda hil egingo garela, zergatik da gai iluna, gustatzen ez zaiguna eta gizartean tabu bezala identifikatzea dezakeguna?

Antropologiari zor diogu kultura zein herrialde ezberdinetan heriotza ulertzeko era, tradizio eta ekintza ezberdinen jakituria, eta zehazki gurean, mende baldekoa deitzen den honetan, argi dago heriotzaren trataerak bilakaera izan duela, eta atzerakoia gehituko nuke. Lehen, norbait hiltzen zenean, etxean biltzen ginen, etxean agurtzen genuen elkar, heriotzaren ikuspegi naturalagoa, errealagoa bizi genuen.

Gaur egungo marko sozio-politiko eta momentu historikoan kokatuta, azkar bizi garen gizartea gara, azkar eta eraginkor, eta gazte, batez ere beti gazte. Beraz, heriotzak ez du lekurik; beno, bai, leku konkretu bat: ospitalea eta tanatorioa, denbora konkretu bat, zenbat eta motzagoa, hobe, eta ahal den aseptikoena, mesedez. Eta hau errealitatetik oso urruti dago. Heriotza mina da, garrasia da, amaiera da, agurra da, maitasuna da... eta hori guztia azkar, garbi eta ahalik eta zarata gutxienarekin

egiten saiatzen garenean, zer gertatzen da? Heriotzari ez diogula daukan lekua ematen, eta heriotzak dakartzan min eta doluei zer esanik ez. Orduan sortzen dira ezegonkortasunak, ez ulertzeak, beldurrak, traumak, dolu ez onartuak eta hainbat eta hainbat min ekidingarri.

Bizitzeko gatoz mundura, eta bizitzen egunerokotasunean jarduten dugu, ikasten dugu, ez dugu prestakuntza gehiegirik behar. Hiltzeko ere bagatoz, baina ez dugu hori ikusi nahi, eta heriotzarekin topo egiten dugunean, galduta sentitzen gara, ez ulertuak, arraroak... Arraroagoa da, ordea, heriotzari leku ez ematea denok biziko dugun zerbait dela dakigunean, geure heriotza ez ezik, baita ingurukoena ere.

Zumaia herri txikia da, bertan oraindik jakiten dugu nor hiltzen den, kalean ditugun karteltxo, egunkari edo aldizkariekin, eta ikusten dugu, begiratzen, komentatzen: “Joxepantoniren alaba hil da, koitadua, nola egongo ote dira etxean”, “Bai, istripuz hil zen,

autopistan azkar omen zihoan”, “Bazuen adina bai, 96 urte”... Hori omen da heriotzaz hitz egitea, eta bai, bada, baina modu ez eraginkorrean. Hizketaldi horiek hor geratzen dira, ez doaz inora gehienetan, eta gure heriotzarekin edo aldamenekoen heriotzarekin konektatzen diguten momentuan, pentsamendu hauek oso gutxi irauten dute guregan, ez digute erakutsi heriotza zuzenean ulertzen, eta, beraz, babestu egiten gara. Elkarrizketa horien guztien ondoren, ezin dugu imajinatu Joxepantonik aurrerantzean izango duen minak eragingo dion bakardadea, ezta autopistan hil zen horren familiari gutxien axola zaiona azkar zihoala jakitea dela, edota 96 urterekin hil zen agureak bere familian hutsune deskribaezina utziko duela. Horretaz ez da hitz egiten, eta hori da garrantzitsuenak.

Heriotzari belarriak ikustean konektatzen dugu honekin, nik hala egin nuen, eta konturatu naiz zein ezberdina izan zitekeen nire mina eta dolua norbaitek heriotzaz sakon, lasai eta benetan hitz egiteko aukera eskaini izan balit. Orain Zumaian eskainiko da espazio hori, eta horrela hilean behin Kabi tabernan bilduko gara *Death café* izenpean, heriotzaz lasai, libre eta epai gabe hitz egiteko. ■

**ARRAROAGOA DA
HERIOTZARI LEKU EZ
EMATEA DENOK BIZIKO
DUGUN ZERBAIT DELA
DAKIGUNEAN**

Liburu? Zer liburu?



JUAN LUIS ROMATET

Udal hauteskundeetara aurkeztutako lau alkategaiak elkarriketatu genituen maiatzeko *Baleike* aldizkarirako. Programei eta proposamenei buruz galdetu genien, baita beraien zaletasunei buruz ere. Idazle edo liburu gogokoena zein zuten galdetu genien, besteak beste. Baita haiek galderei erantzun ere. Zalantza dut ea ni gai izango nintzatekeen galdera horri erantzuteko. Ez irakurlea ez naizelako, liburuak amaitu eta gutxira ahazten ditudalako baizik.

Maite dut irakurtzea; irakurle porrokatua naiz txikitatik. Nire lagunak baloiarekin jolasean aritzen ziren; ni, ordea, ohean etzan eta Jules Vernerren, Agatha Christieren edo Donostiako Artzain Onaren katedral alboan zegoen liburu denda zahar batean erosten nituen El Coyoterren liburuak irakurtzen egoten nintzen. Astean pare bat liburu irakurtzen nituen, batzuetan hiru ere bai, eta pirata edo itsasgizon baten galtzetan sartu nahi ez nuenean, Sherlock Holmesen alboan egon nahi izaten nuen trama misterioetsuren bat konpontzen. Jakina, ikasketei ez nien hainbesteko denborarik eskaintzen, notetan garbi ikusten den bezala.

Ez dut irakurzaletasuna galdu, baina urteekin eta ardurekin gero eta denbora gutxiago dut irakurtzeko. Auskalo zenbat liburu ditudan etxean irakurri gabe. Horietatik askok oraindik plastikozko zorroa kendu gabe izango dute. Eta hala ere gehiago erosten ditut, apalen edukiera infinitua izango balitz bezala. Sofa aldamenen dudan liburu dorrea World Trade Centerra balitz bezala eroriko da egunen batean.

Bada, ordea, arduratzen nauen zerbait eta da irakurritako liburuak denbora gutxira ahazten ditudala. Agian liburuen kalitate kaskarragatik izango da. Ez dakit. Apaleko liburu bat eskutan hartu, azala begiratu, sinopsia irakurri eta etxetik pasa den norbaitek bertan utzi duela pentsa dezaket, liburu horren inguruan ez dudalako ezer gogoratzeko. Ahazten lehena liburuaren izenburua bera izaten da. Eburne Portelaren *Mejor la ausencia* liburu da zutabe hau idatzi aurretik amaitu dudan azkena. Bada, Internetera joan behar izan dut izenburua gogoratzeko, jada lausotzen hasia nuen eta.

Liburuekin gertatzen zaidan hau ez zait diskoekin edota pelikulekin gertatzen. Pelikula edo disko gogokoenak zein ditudan galdetzen badidate, di-da batean erantzungo diet, eta arrisku bakarra izango da hurrengo egunean zerrenda erabat desberdina izatea. Liburuen kasuan, erantzuna ia beti bera izango da: James Ellroyren *L.A. Confidential*. Badakit irakurri nuela, apalean dudalako erabat eskukatutako liburu-kin bat, idazlearen beste liburu guztiekin batera. Seinale idazlea gus-tuko dudala. Baina ez naiz ezertaz akordetzen. Liburu horretan oinarritutako pelikula egin zuten orain 20 bat urte; nire gogokoenetako bat da. Hori bai, esnob hutsa naizenez, liburu pelikula baino hobea dela esango dut, gainera, pontifikatzen. ■

**ESNOBA NAIZENEZ,
LIBURUA PELIKULA
BAINO HOBEA DELA
ESANGO DUT, GAINERA,
PONTIFIKATZEN**



ARDANTZABIDE

ATSEDENA

Pikolin Cromo eskeintza berezia. **2019 maiatza-ekaina**

Atsedea onena, preziorik onenean

PIKOLIN Cromo 135x190zm

Lehen 918€, orain

459€



Txomin Agirre, 4 · 20750 Zumaia · 943-86 25 32

ardantzabide@gmail.com · www.ardantzabide.com ·  



Ezkontzak, Batailoak, Jaunartzeak

Lore-zentruak, Koroak

Landare naturalak eta artifizialak

Zermika-lanak eta zumezko saskiak

Etxez etxeko zerbitzua!

Santiago auzoa, 18

Tel. 943 862 611


Coro Prieto
estetika zentrua

Coro Prieto estetika
40 urte zumaiaarren zerbitzura
943-86 13 22



Georges Lakhovsky

Minbizia eta bizitzaren sekretua



Era askotako uhinen oskilagailua